

www.noaia.com

Noaia!!!



“Bodologuak”,
ostiralean Sutegin



Jai giroan

ospatuko da Andatza Eguna

Marije
Arropa denda

Denboraldi berria!
Etxebeste, 3 - 943 36 11 06 - **USURBIL**

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak

www.lhusurbil.com

Administrazioa eta kudeaketa | Elektrifikate-erakundeak | Fabrikazio mekanikoa | Energia eta ura | Produzio zerbitzu eta mantentzeak

**Maiatzak 14 eta 19
ATE IREKIAK**

943 36 46 00

Sarrereren salmenta

bastero KULTURGUNA | **kutxa** | **SERVIKUTXA KUTXAZAINAK** 943 00 12 00 www.kutxa.net

ANDOAINGO UDALA | **Gipuzkoako Foru Aldundia** | **bastero** KULTURGUNA

OINKARI DANTZA TALDEA
"Ari du"
MAIATZAK 11, ostirala
22:00h Auditorioan

URVAL ENSEMBLE
"Procesos eternos"
MAIATZAK 12, Larunbata
20:00h Ekitaldi aretoan

Klarinete kontzertua

Basterock gauak 2: SEWERGROOVES
"Trouble Station"
MAIATZAK 18, Ostirala
22:30h Auditorioan

Andoain Ekitaldiak | Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

Albistea iruditan!

Matrikulazio epea zabalik

Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetan

Astelehenaz geroztik irekita dago, 2012-13 ikasturterako Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetan matrikulatzeko epea. Sukaldari-zerbitzari langilea edota ile-apainketa laguntzaile izateko ikasketen artean aukera daiteke. Heziketa eskaintzaren berri izateko, ate irekien eguna ospatu zuten joan den ostiralean.

Egun ikasle direnak euren prestakuntza saioetan murgilduta ikusi zituzten, bisitan joan eta hurrengo ikasturtean ikasle berriak izan daitezkeenek. Instalakuntzak ezagutu eta heziketa eskaintza honen inguruko zehaztasunen berri jaso zuten apirilaren 27an, Atalluko Hasierako Lanbide



ATALLUN EMATEN DIRA PROGRAMA HAUEN ESKOLAK.

Prestakuntza Programetan. Hain zuzen, DBHko graduatua ez duten 15-18 urte arteko gazteei zuzendurik dago. Matrikulatzeko epea zabaldu dute jada,

ekainaren erdialdera arte: astelehenetik ostiralera, 8:00-14:30 artean. Informazio gehiago: 943 360 465 / lhi.usurbil@gmail.com

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

Ez da eredu ona

Pasa den abuztuan gure herria erdi hutsik geratu zen herritar askok oporretaz disfrutatzeko kanpora ateratzea erabaki baikenuen. Opor giro horretan, telebistan entzun nuen herrialdez herrialdeko opor eskubideen konparaketa eta herrialde jakin batean eskubide hau murriztuta dagoela esaten zuten. Dirudienez, opor-egunen kalkulua, langileak lantegi berdinean zenbat urte daraman arabera egiten da. Hau da, lan urte bakoitzagatik egun bat edo bi gehitzen dira. Beraz, langileen gehiengoak urtero aste beteko edo bi asteko oporrak dauzka. Kasu hauetan kontzeptuek bere garrantzia badute eta esanguratsua da egun hauek izendatzeko herrialde honetan erabiltzen den espresioa: oporrak esan beharrean “ordainduta-ko egun libreak” diote. Beste pausu bat ematen dute: despidoa librea da, enpresak ez du ezer justifikatu behar langile bat kaleratzeko.

Baina eskubide laboralak ez ezik, herrialde honen eskubide sozialen babes sistema ahula dela esan daiteke. Esate baterako, bere osasun sistema publikoa ez dela unibertsala eta heriotzazigorra indarrean mantentzen duela aipatu daiteke.

Ez al dira hauek arrazoi nahikoak nazioarteko erakundeek eta herrialde jakin batzuen gobernuak, hauen biztanleen egoeran erreparatuz eta beste lekuetan gertatu den bezala, herri honen agintariei beste politika sozial eta ekonomikoa egitea gomenda diezaietela guxienez?

Baina bere politika ez da bakarrik bertako biztanleentzako kaltegarria; mundu guztirako ondorioak baditu eta. Adibidez, herrialde honek, eta berak onartua, arma nuklearrak dauzka.

Eta hau izan bada herrialde batzuk munduko segurtasunerako etsaia izendatzeko eta inbaditzeko aitzakia, herrialde honekin jarrera berdina izatea ez al da bidezkoena? Are gehiago jakinda munduko gastu militar handiena daukala, sei aldiz bigarrenarena baina handiagoa, eta maiz bere armada beste herrialde asko militarki inbaditzeko erabiltzen duela.

Baina gainera jakinda ere bere aztarna ekologikoa munduko bostgarrena dela, bere bizimoduak, ekoizpen eta kontsumo sistemak munduko biztanle guztiengatik kaltegarria dela baieztatu dezakegu. Aztarna ekologia, ekoizpen sistemak eta bizimoduak ingurugiroarengan dauzkaten eraginak neurtzeko adierazle bat da. Ondorioak planeta osoan eta biztanle guztiengan direla jakina da: ozono-geruzaren zuloa, euri azidoa, berotegi-efektua,...

Eta datuekin bukatzeko, munduko zor publiko altuena daukan herrialdea dela aipatu dezagun.

Horrela azalduta, batek baino gehiagok galdetuko du: munduko herrialde indartsuenek eta Nazio Batuen Erakundeak ez al dituzte bertara bere “ejertzito humanitarioak” bidali behar? Ez al du “erreskatea” merezi? Hau dena baina gutxiagotatik, Afrikan edota herrialde arabiarretan (Afganistan, Irak,...) horrela izan baita.

Beno, konturatuko zineten ezezkoaren arrazoa: Amerikako Estatu Batuetaz ari garela. Eta tamalez, gai askotan ereduia izaten jarraitzen du.

Eredua izan da hemen ere bai; lan erreforma ezartzeko. Gaizkilearena, ez da eredu ona.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Andoaingo

klarinete topaketan izan dira

V. Klarinete Topaketa egin berri da Andoainean eta bertan Zumarte Musika Eskolako bi ikasle hauek hartu dute parte: Unai Lopez eta Malen Lanz. Andoaingo hiru doinu hauek prestatu behar izan zituzten; “Larramendi” kalejira, “Goiburu” eta “Santa Krutz Martxa”. Argazkian dira Andoaingo klarinete topaketan parte hartu duten musikariak, Malen eta Unai, Zumarteko klarinete irakaslearekin batera.



Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 **teilatua eta fatxadak**
943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzealdea), LASARTE-ORIA

JOSETXO IKATZETA
 **Iturgintza**
 TEL: 943 36 20 26
 687 95 12 25

Otar-Goxo
 Elikagaiak
 Zubiaurrenea, nº2
 ☎ 943 36 55 81
 20170 Usurbil

D3M eta Askatasunako auziperatuen absoluzioa eskatu du udalbatzak

Ostegun honetan, maiatzaren 3an hastekoa da Espainiako Auzitegi Nazionalean, D3M eta Askatasunaren aurkako epaiketa. Hamahiru euskal herritar daude auziperatuak, Agurtzane Solaberrieta usurbildarra tartean. Epaiketa honen harira, azken asteotan hainbat elkartasun ekimen burutu dira. Besteak beste, Usurbilgo Udalak ere gai honen inguruko mozio bat onartu du. Larunbatean, nazio manifestaldia burutuko da Bilbon.



HERRIAN SORTU DEN BATZORDEAK AURKEZTU ZUEN MOZIOAN, EPAIKETA BERTAN BEHERA UZTEA ESKATZEN ZEN.

D3M eta Askatasuna auziak salatu eta auziperatuei elkartasuna adierazteko herrian sortu den "Eskubide guztiak proiektu guztientzat" batzordeak mozio bat aurkeztu zuen joan den apirilaren 24ko osoko ohiko bilkuran. Bildu eta Aralarren aldeko botoekin gehiengo osoz onartu zen. Ostegun honetan abiatuko den epaiketan auziperatuak dauden hamahiru euskal herritarren absoluzioa eskatzen du testuak, eta eskaera horrekin bat egin zuen honenbestez, udalbatzak. Honakoa ere galdegiten du: "epaiketa hau bertan behera gelditzea eskatzen du, era berean Alderdien Legearen baitan zabalik dauden bestelako sumarioen itxiera eta ilegalizazio politika ororen etetea exijitzen du".

13 auziperatuetariko bat usurbildarra dugu, Agurtzane Solaberrieta. Apirilaren 24an onarturiko mozioaren bidez, "Udal honek Agurtzane Solaberrietak, bere senide eta lagunak pairatzen dauden egoeraren aurrean gure elkartasuna adierazi nahi du". Epaiaketak usurbildarrari suposatuko dizkion gastuen kargu egingo da Udala eta epaiketara, udal ordezkariak bat bidaltzeko asmoa erakusten du, gehiengo osoaren babesa jasoriko testuak. Modu honetan, Udalak ere bat egin du antolatutako dauden mobilizazioekin eta herritarrei ekimen hauek parte hartzera deitzen zaie.

Bederatzi puntuko mozioak gaineratzen duenez, "Udal honek Euskal Herriaren etorkizunari begira konponbidearen alde lan egiteko apustua egin du, gatazka historikoa gaudituko duen konponbide demokratiko eta negoziatuaren bitartez. Bide horretatik, marko demokratiko baten beharra azpimarratzen du udal honek, zeinak gaur aipagai ditugun gertakari hauek gauditzeaz gain, gatazkaren konponbidea eta ondorio guztiena ekarriko duena". Mozioaren berri emango dio Udalak, "Espainiako Gobernuako delegaritzari, justizi ministroari eta Auzitegi Nazionaleko lehendakariari".

Hamaikabaten osoko zuzenketa

Bildu eta Aralarren aldeko bozkekin onartu zen mozioari, osoko zuzenketa aurkeztu zion Hamaikabat udal taldeak. Sei puntuko testuan, D3M eta Askatasuna auziko sumarioaren izaera politikoa salatu eta sumarioa artxibatzea eskatzen zuten. Baita Espainiako Auzitegi Nazionala eta Alderdien Legea desagertzea ere. Hamaikabat udal taldeak aurkezturiko osoko zuzenketa ez zen bozketara eraman. Lehenbizi, "Eskubide guztiak proiektu guztientzat" taldeak aurkezturiko mozioa bozkatu eta gehiengo osoaren babesa jaso baitzuen.

Deialdi ugari datozen egunetarako

Azken asteotako mobilizazioek egunetan ere. Besteak beste, epaituei babesa adierazteko autobusa irtengo da astelehenean Usurbildik. Zehaztasun gehiago, hemen:

Maiatzak 3, osteguna

11:30 Herri krosa, ITAYAK deituta (informazio gehiago 14. or).
19:30 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan, epaiketaren lehen egunean.

Maiatzak 5, larunbata

17:30 Manifestazioa Bilboko La Casillatik, "Epaiketa politikorik ez! Eskubide guztiak proiektu guztientzat!" lemapean. Usurbildik bertara joateko autobusa antolatuko da. Izen ematea, ohiko lekuetan.

Maiatzak 7, astelehena

Epaituei babesa emateko Madrilerako autobusa aterako da, goizaldean. Izen ematea, ohiko lekuetan.

Maiatzak 12, larunbata

Txandakako elkarretaratzeak egunean zehar.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Gure eskola txikia bizirik!



Herriko eskola galtzen denean herria hiltzen hasten den seinale izaten omen da. Zorionez ez da gure herriko kasua, gaur egunean 2-12 urte arteko 22 haur daude Aginagako eskolan, azken urteotako kopururik handiena. Txikia izanik, beste goxotasun eta beste gertutasun bat transmititzen dute ikasle, irakasle eta gurasoen artean. Apirilaren 28an, Zuberoako Eperra ikastolan egin duten zabalkuntza ospatu berri dute. Gaur egun, 112 haur dabilza Zuberoako ikastola bakar horretan, lurralde hartako haurren %15-a. Eskola txikia bezala hasi ziren baina gaur egun Zuberoako euskararen iraupena, ikastola horri lotuta dagoela esango nuke nik. Beraz, Agiña bezalako herriek ere eskola txiki baten beharra dutela ezin da ukatu! Ahaztu gabe eskerrak Agiñan irakasle lanean ari zireten Lucia, Gurutze, Jaione, Maider, Maria eta Eiderrentzat.



URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Igandean, Andatza Eguna



Konturatzerako maiatza ere iritsi zaigu! Ea apirila euritsu honen ondoren udaberri kutsua etortzen zaigun! Maiatzeko asteburuak beti izaten dira ekitaldiz beteak! Lehenengo igandean Andatza Eguna ospatuko da. Egia esan, ni neu igo ez naizela badira urte batzuk, baina badakit jende ugari bertaratzen dela eta eguraldiak laguntzen badu behintzat, egun-pasa polita igartzeko aukera izaten dela. Beraz, animatu! (Neure buruari ere hala esango diot!). Maiatzeko bigarren asteburuan berriz, Jexux Artzeren omenezko ekitaldiak izango dira herrian eta baita Herri Urrats ere. Hirugarren asteburuan berriz, hainbeste maite dugun Sagardo Eguna eta azken asteburuan berriz, jaunartzeak. Hauek ere noizean behin tokatzen dira. Honela ikusita, azkar pasako zaigu maiatza ere! Hala eta guztiz, gure auzoari propaganda pixka bat eginez, gogorarazi badugula auzoan parke polit bat eta udaberriko egun eguzkitsuak, primerakoak izaten direla bertaratu eta tarte eder bat pasatzeko!

KALEZAR

INMA BALDA

Kontuz bizikletekin!!!



Kontuz! Hemen bizikletak lapurtzen dituzte! Ez litzateke oso polita geratuko gure auzoko sarrera irteeretan honelako esaldia jasoko lukeen kartelik! Baina zerbait pentsatzen hasi beharko dugu, azken aldi honetan gure etxe eta zokoetan jasota genituen bizikletak desgertzen ari direla ikusirik eta, noski, sufriturik! Pare bat bizilaguni gertatutakoa jasotzen dut hemen: beraien etxean zituzten hainbat bizikleta eraman omen dituzte. Baina, ziurrenik ez dira bakarrik izango eta beste norbait ere gauza bera gertatu zaio eta bakarra delakoan ezer esan ez. Ba, ez da alarma sortzeko asmorik, baina zure bizikleta(k) oraindik zurean bad(ir)a, gorde itzazu ondo giltzapeturik, badabil eta norbait horiek bereganatzeko asmotan. Ez da hau lapurreten inguruan idazten dudan lehen kronika eta aurrekoan eta oraingoan ere sentimendu bera sortzen zait ene baitan: fidagaitza! Gure bizilagunak, auzotarrak, gure konbidatuak, bisitariak ... zelatatzen hasi behar ote dugu? Gure etxe inguruak harresiz hesitzen hasi behar ote dugu? Edozein, ezagun edo ezezagun, susmagarritzat hartu behar dugu? Berez, ez gara horrelakoak. Auzo lasaia eta atsegina dugu Kalezar, bertakook abegitsuak garelako, bistan da! Eta horrela izaten jarraitu behar dugu, dudarik ez! Baina, kontuak kontu, lehen baino erneago ibiltzeak ez digu kalterik egingo.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Zubietako martxa



Umeak (& gurasoak): kultur astea izan zen joan den astean. Plaza umez beteta, ekintza pilo bat, eta umeen gustukoak denak: txokolata, antzerkia... Giro alai bazterrotan.

Gazteak: Festa batzordea martxa betean. Jendearen laguntza beharko dute aurtengo festetan, dena ez omen da konpontzen diruarekin -edo hobeto esanda, diru faltarekin-.

Helduak: tropa handi bat Gipuzkoari bueltak ematen bizikletan, ero moduan. Gutxiago falta da Quebrantahuesos-erako, bizirik iristen badira, noski.

Zaharrok: gerriko minez eta baratzera ezin joanik. Eurria ari duela eta hezurretako minez... Ikusten duzue nez denok pozik.

Hala ere, amesgaiztoek hor diraute: egunotan errauste-giaren etorkizuna politikaren eremuan jokatzen ari da, lanbide eskasia gero eta handiagoa da...

Buruntzaldeko bost enpresa berri, euskararen erabilera normaltzeko prest

Usurbilgo Talleres Mecánicos Manuel Etxeberria S.A., Hernaniko Adarra lan tresnak eta Panificadora de Hernani, Lasarte-Oriako Compañía Hostelera del Norte eta Andoaingo Orma-Jaki Ona enpresek euskararen erabilera normaltzeko Buruntzaldeko udalen "Baietz gurean" egitasmoarekin bat egin dute. Apirilaren 23an sinatu zuten lankidetz hitzarmena, udalerrri bakoitzean kokaturiko enpresak bere herriko erakunde nagusiarekin, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean burutu zen ekitaldian. Hauekin, 2005. urteaz geroztik, guztira 13 dira Buruntzaldeko enpresa desberdinetan martxan jarri diren euskara planak.

Joan den asteko sinatze ekitaldiak aipatu enpresetako eta Usurbil, Lasarte-Oria, Hernani eta Andoaingo udal ordezkariak bildu zituen. Aipatu lau udalok, hitzarmena sinatu berri duten bost enpresetan euskara planak martxan jartzen lagunduko dute.

BURUNTZALDEKO UDALAK

“Eskualdeko enpresetan euskara planak abian jartzeko asmo sendoa azaldu dute”

Lehenbizi, lantegi bakoitzean egoera linguistikoaren inguruko azterketa bat egingo da. Egoera zein den ikusita, hobetzeko proposamen batzuk egingo zaizkie enpresa hauei, euskalduntze bidean aurrerapausoak eman ditzaten. “1000 puntuko tarte batean, 100 puntuko 10 taldeetan banatzen da. 10 urrats dira eman beharrekoak”, adierazi zuen Hernaniko alkate Luis Intxauspek. Beraz, hobekuntza proposamenak egin eta gauzatu ahala, 100 puntuko tarte batetik 100 puntu beste batera aurrerabidean euskalduntzen joango dira enpresa hauek.

Aholkularitza lanetan diharduen enpresa batek egingo du prozesu guztia-



LASARTE-ORIAN ESKAINI ZUTEN PRENTSAURREKOA, AURREKO ASTEAN.

ren inguruko jarraipena. 700, 500 eta 300 euroko diru-laguntzak emango dituzte bost enpresa hauentzat, lekuan lekuko udal bakoitzak. Diru-laguntza kopuru handienak plana martxan jarri berritan banatuko dituzte udalek. Euskalduntze bidean, plana bera gauzatzeko joan ahala, urratsak ematen joan ahala alegia, euskararen erabilera normaltzeko beharra hainbestekoa izango ez denez, udalek banaturiko diru-laguntza kopuruak murrizten joango dira.

Hizkuntzen kudeaketaren garrantzia

Sinatze ekitaldian zehar, Buruntzaldeko gainerako enpresak antzeko urratsak ematera animatu zituz-

ten. Tartean, Naiara Sanchiz Hernaniko Adarra Lan Tresnak enpresako ordezkariak. Euskarazko prestakuntza jaso duten belaunaldi gazteak lan munduan murgildu ahala, bere esanetan, “konturatzeko gara hizkuntzaren gaia beste modu batera kudeatu behar dela enpresan”. Euskaraz, eta bereziki gainera, inguruak hala eskatzen duelako: “Baditugu hainbat bezero eta hornitzaile bertakoak direnak, euskaldunak, eta hizkuntzaren aldetik aurrerapausoak ematen ari direnak. Eta guk maila berean errespetuz erantzuteko beharra ikusi dugu”. Aldaketarik txikienean enpresaren martxan nabarmentzeko moduko eragina duela jabetuta, “uste dugu egitasmo honek lehen urrats horiek ematen, bidea irekitzen laguntzen duela”.

“Euskararen plana eta kalitate plana eskutik helduta doaz”

Lasarte-Oriako alkate Pablo Barriok azaldu zuenez, “Buruntzaldeko udalok asmo sendoa dugu eskualdeko enpresetan euskara planak abian jar daitezzen laguntzak emateko, bai sustapen lana bultzatuz, eta baita diru-laguntza lerroari utsiz”.

Ildo beretik, Hernaniko alkate Luis

Intxauspek ere Buruntzaldea mailako egitasmoarekin zer lortu nahi den argi adierazi zuen, “gure eskualdeko enpresak ahalik eta kalitate lehiakortasun handienekoak izatea, ahalik eta txukunen aritzea eta euskararen traterara hor kokatzen dugu”. Enpresa eta udalen arteko harremanak iraunkortu nahi dituztela ere gaineratu zuen.

Maixu etxeko pisu bat gehiago orain, alokairu sozialean

Gernika ibilbidea 13an, Agerialde parean kokatua dagoen Usurbilgo Udalaren jabetzako eraikinean, Maixu etxe izenez ezagaturikoan, alokairu sozialera bideraturiko pisu bat gehiago egongo da aurrerantzean. Orain arte, larrialdi egoerarako zeuden bizilekuetako bat da hain zuzen, Udalak etorkizunean alokairu sozialerako baliatu asmo duena. Alokairuan esleitzeko oinarriak behin betiko onartu ziren apirilaren 24ko osoko bilkuran hain zuzen.

Bildu, Aralar, EAJ-PNV eta PSE-EE proposamenaren alde agertu ziren, Hamaikabat udal taldea aldez, aurka. Taldeko bozeramaile Luisuari Ormaetxeak egitasmo honekin hasieratik desados zeudela adierazi zuen, eta aurka bozkatuko zutela iragarri.

Mertxe Aizpurua alkateak berri eman

zuenek, behin betiko onartutzat jo diren oinarriok hasieraz onartu zirenean, 8 lan egunez jendaurrean egon ostean, inork alegaziorik ez zuen aurkeztu. Maixu etxeko pisu honekin, guztira 19 dira egun Udalak alokairu sozialera bideratuak dituen etxebizitzak.

Eskaera egiteko, udaletxera jo

Udalbatzak azken osoko bilkuran Maixu etxeko pisuetako bat, orain arte larrialdi egoerarako baliatzen zena alokairu sozialera bideratzea behin betiko onartu ostean, maizterra hautatzeko prozesua abiatu du jada. Pisu honetan bizitzeko interesa duten herritarrek, maiatzaren 4tik 23ra arteko epea dute, eskaera udaletxeko erregistroan aurkezteko. Leku berean eskura daitezke, izen emateko eskabide orriak, baita aukeraketa prozesurako oinarrien inguruko informazioa ere.



APIRILAREN 24KO PLENDAN
HARTU ZEN ERABAKIA.

2011ko udal

aurrekontuak, likidatuak

Kiol Patronatuko eta Udaleko Kiazko aurrekontuen likidazioak onartutzat jo dira jada, apirilaren 24 osoko bilkuran Mertxe Aizpurua alkateak dekretu bidez berri eman zuenek.

Berdintasunerako tokiko politikak

Foru Aldunditik zetorren eskari bati erantzunez, martxan den legealdi honetan "berdintasunerako tokiko politikak lantzeko konpromezu irmoa" hartu du Usurbilgo Udaleko udalbatzak aho batez, apirilaren 24ko osoko bilkuran. Konpromezua modu honetan gauzatu da udalerrri honetan: "Usurbilgo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planean (2010-2014) jasotzen diren helburuak lortzeko eta planak jasotzen dituen ekintzak jorratzen jarraitzeko beharrezkoak diren baliabideak eta bitartekoak" ezarriz. Udal ordezkari guztien babesa jaso zuen proposamenak.

Ibilaldia eta antzezlan bat, datorren astean Gure Pakea elkartearen eskutik

Ekitaldi bana antolatu du Gure Pakea elkarteak, datozen maiatzaren 9 eta 10erako. Hasteko, Usurbil-Benta-Orio ibilaldia egiteko gonbita luzatu dute, hilaren 9rako. Irteera hitzordua, goizeko 9:00etan finkatu dute Artzabalen.

4 ordu inguruko iraupena izatea aurreikusitako dute. Ekimenean parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du egunotan, maiatzaren 3 edo 4an beranduenez, Gure Pakea elkarteak Artzabalen duen egoitzan. Ibilaldia

amaitu ostean, bazkaritarako bilduko dira. Eguneko menua dastatu ahal izango dute. Prezioa, 12 eurokoa da.

"Egutegiko Neskak"

Ibilaldiaren biharamunerako bestalde, maiatzaren 10erako osteguna alegia, antzerkia eta kantua uztartuko dituen emanaldia antolatu du Gure Pakea elkarteak, 17:00etatik aurrera Artzabalen. Hondarribiako jubilatuen aktore dituen taldeak "Egutegiko Neskak" antzezlan eskainiko dute bertan.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

Igandean, Andatza Eguna

Hamaiketakoa eta herri kirolak, erromeri giroan

Maiatzeko lehen igandearekin batera, erromeria eguna dugu Usurbilgo zaindari lanak egiten dituen Andatza. Andatza Eguna ospatuko da hilaren 6an. Goizetik bazkalostera arte, jan edana, musika edota kirol jarduerak tartekatuko dira. Ia eguraldiak lagun-tzen duen.

Mendirra joateko urte garai ederrenetarikoa gauden honetan, plan ezin-ho-bea igande honetarako, maiatzaren 6rako; Andatza Eguna ospatuko baita. Mendi buelta egin eta erromeria giroan murgiltzeko aukera izango da. Honako egitaraua prestatu dute, beste behin, Usurbil eta Zizurkilgo udalerriek, elkar-lanean.

Egitaraua

Goizean zehar, erromeria: trikitalari eta bertsolariak.

11:00 Hamaiketakoa: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

12:00 Herri kirolak eta jokoak hau-rrerentzat eta helduentzat.

14:00 Bazkaria (norberak berea era-manda). Kafea eta kopa banatuko dira.

Antolatzaileak: Zizurkilgo Txepetxa Gazte Asanblada, Usurbilgo Andatza Mendi Elkarte, Zizurkilgo Udala eta Usurbilgo Udala.

Iñurategiren diaporama

Andatza Egunaren bezperatan, Alberto Iñurategiren diaporama antolatu dugu NOAUA! Kultur Elkarteak eta Andatza Mendizale Elkarteak. Hitzaldia ostegun



HAMAIKETAKOAK ARRAKASTA
HANDIA IZATEN DU.


honetan izango da, maiatzak 3, 19:00etan Sutegin.

“Porrotaren alde” izenburupean, hitzal-di modukoa eskainiko du Alberto Iñurategik eta bere hitzak irudien bidez ilustratuko ditu.


Hamaika
ikusteko, bizitzeko



LTD/Euskaltel



Ordenagailuan



Ipad/Tablet



Mugikorrean

Nazioa eskura

www.hamaika.tv

Ostiralean “Bodologuak”, barre egiteko ikuskizuna Sutegin

Oholtza gainean, hiru aktore: Mikel Pagadizabal, Nagore Aranburu eta Egoitz Lasak. Hirurek ezkontza bat izan dute eta hortik aurrerakoak... Ba Sutegin ikusi beharko ditugu. Bakarrizketa formatuari jarraitzen dio “Bodologuak” ikuskizunak, baina elkarren ondoan ere arituko dira; txandaka edota hirurak batera eszenario gainean. Umorea ez da falta, beraz.

Jexux Artze Kultur Elkarrekin antolatu duen zikloan, hauxe izango da aurtengo edizioko lehen ekitaldia. Umoretsu hasiko da beraz, Jexux Artze zenaren omenezko egitaraua. Hedabideen aurrean esan izan duten moduan, “Bodologuak” “barre egiteko ikuskizuna da. Dazkagun edota sortzen zaizkigun zalantzei erantzuz-

ten diegu, bakarrizketa batzuen bitartez”, Egoitz Lasaren hitzak dira horiek.

Telebistan elkarrekin arituak

Nagore Aranburuk, Egoitz Lasak eta Mikel Pagadizabalek elkarrekin askotan jardun dute lanean; bereziki telebistan. ETB1eko *Wazemank* eta *Noaoa* saioetan, besteak beste. Baina oraingoan lehen aldiz ari dira hirurak batera ohol-tza baten gainean. Hala dio Egoitz Lasak: “hau da lehen aldia hirurok eszenatoki batean batera gaudena. Baina urte mordoxka bat daramagu gidoilari bezala eta elkarrekin lanean”.

Bodologuak: maiatzak 4 ostirala.

Non: Sutegin 22:00etan.

Sarrerak: 8 eurotan Lizardin. 10 eurotan, egun berean (takilan).



MIKEL PAGADIZABAL, EGOITZ LASA ETA NAGORE ARANBURU.

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarrekin.

Alokairu sozialeko etxebizitza baten zozketa



Gernika ibilbidea 13, 1. eskuina (Maisu etxea) udal etxebizitza bat alokairu sozialean jarriko da. Maizterra aukeratzeko prozesua martxan jarri da.

Parte hartu nahi duten herritarrek **2012ko maiatzaren 4tik 2012ko maiatzaren 23ra**, biak barne, aurkeztu beharko dute eskaera udal-etxeko erregistroan.

Izena emateko eskabide orriak hala nola aukeratzeko prozesua arautuko duten oinarriak Udaletxean eskura daitezke.

Usurbil
osasuna atez ate



“Arriya” pelikula ikusteko aukera aparta, larunbat honetan Sutegin

Baserritar kutsuko herri bat irudikatzen da “Arriya” filmean; Alberto Gorritiberea zuzendariaren oroitzapenek eraikitako herria. “Errealismoan oinarrituriko abstrakzio bat da filma, koadro impresionista bat”, zuzendariaren hitzetan.

Pertsonaia baten eta haren maitasun zapuztuaren istorioa kontatzen da “Arriya” filmean. Tartean, bi familiaren arteko apustua dago presente eta pertsonaien bizitzetan eragin handia izango du horrek.

Alberto Gorritiberearen film honek harrera ona izan zuen zinema aretoetan egin zituen lehen egunetan. Donostiako aretoetan gehien ikusitakoa izan zen, estreinaldia egin zen asteburuan.

“Eutsi!” (2007) pelikularekin egin

zuen debuta Gorritibereak eta 2009an “Flysh, haitzen hitza” filma osatu zuen. Baina lan denak kontuan hartuz, “Arriya” izan da bere lanik goraipatuena.

Malagan saritua


Pelikulan agertzen diren aktoreak hauek dira: Kandido Uranga, Ramon Agirre, Iñake Irastorza, Sara Casasnovas, Zorion Egileor, Egoitz Lasa, Aitor Beltran, Joseba Apaolaza, Klara Badiola, Ainere Tolosa, Joelle Oneca eta Iban Garate. Orain urtebete hain juxtu, “Arriya” filmak lau sari irabazi zituen Malagako zinema jaialdian.

Arriya: maiatzak 5 larunbata.

Non: Sutegin 22:00etan.

Sarrerak: 2 eurotan Lizardin. 3 eurotan, egun berean (takilan).

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea.



EGOITZ LASA ETA RAMON AGIRRE,
PELIKULAREN PASARTE BATEAN.

Sarrera zozketan sarituak

Jexux Artze Kultur Elkartek antolatutuen ekitaldietarako, bina sarrera gutien zozketatzeko NOAUA!ko bazkideen artean. Hauek izan dira sarituak:

Presen Egileta (*Bodologuak* saiorako).

Jon Arriaga (*Arriya* pelikularako).

Aintzane Aizpurua (Ruper Ordorikaren kontzerturako).



LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

Zure
au  era



- **D.B.H.**
- **BATXILERRA**



Hilerriko gurutzea kentzea erabaki du Udalak

Martxoa hasieran 25 urte bete zituen Aginagako Arrate Elkartek burutu zuen bazkideen urteroko batzarrean, beste gaien artean, Usurbilgo hilerriko gurutzea ere hizpide izan zuten. Bilgunetik adierazi dutenez, hilerri berria egin zenetik, “egurrezko gurutze handi bat jarria egon da” eta euren esanetan, orain Udalak kentzea erabaki du.

Lerroon bidez, Arrate Elkartetik erabaki horrekiko euren desadostasuna adierazi nahi dute, elkartekoen arabera, jakinarazpenik gabe hartu delako aipatu erabakia.

Horren berri, fededunak diren herritarrek behintzat izan beharra zutela irizten diote. Usurbilen



gehiengoa oraindik sinisduna izanik, gurutzea nahi duenak jarri beharrean,

nahi ez duenak kendu beharko lukela uste dute.

udajolas

2012

Udajolasen izena eman duten guztiak onartuak izan dira.

Plaza guztiak ziurtatuta daudenez, maiatzaren 13a baino lehenago egingo da diru-sarrera. Data hori pasata egiten diren ordainketak ez dira onartuko eta plaza galduko da. Ordainagiriaren kopia Noaua!ra eraman behar da.

Ordainketa EUSKADIKO KUTXAko kontu honetan egin behar da eta bertan haurraren izen-abizenak adierazi:

3035 0140 34 1400025811 Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko inolako kasutan.

Kuota: 77€ **Famili ugaria: 62€** (txartelaren kopia ekarri behar da)

Udajolas 2012 guraso bilera, ekainaren 13an asteazkena, 17:00etan Udarregi ikastolan izango da.

Harremanetarako telefonoa: 943 360321

Buruhandiak egiten ikasteko tailer bat antolatu du Hitz Ahok

Ikastolako Aste Kulturala dela eta, Hitz Aho Guraso Elkarreak "buruhandiak egiten jakiteko" tailer bat antolatu du. Maiatzaren 12an eta 19an, bi larunbat goizetan burutuko da ikastaro hau Agerialden.

Ikastaro honetan izena ematerakoan 10 euroko ordainketa egin behar da eta parte hartuko duten familiako kide guztien izenak eman behar dira.

Izena emateko epea hau izango da, maiatzaren 7tik 10era. Eta izena emateko, e-mail bat bidali behar da helbide honetara: hitzaho@udarregi.com

Agerialden egingo da ikastaroa eta hurrek jolasteko lekua izango dute.



AGERIALDEN ESKAINIKO DUTE
TAILERRA.

Erakusketa eta kalejira

Egindako lanen erakusketa bat egingo da Sutegin eta ekainaren 1ean ostirala arratsaldean kalejira txiki bat egingo da trikitalarien laguntzarekin.

Datorren astelehenean, odola emateko aukera

Datorren astelehenean, maiatzak 7, odol emanaldia izango da herriko osasun etxean. Ohi bezala, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era. Emaileen Elkarteko kideek gogorarazi dutenez, "deialdia herritar guztiei irekia dago, 18 eta 65 urte arteko guztiei".

Hurbiltzen direnei, medikuak azterketa egiten die, osasun arazoekin ezin baita odolik eman. Norbaitek zalantzarik izango balu, medikua izango da bertan argitzeko kezka guztiak". Martxoko odol emanaldian, 63 kidek eman zuten odola.

"Gertu-gertutik" diaporama, Sutegin

Gertu-gertutik du izena Iñaki Agirresaroberen bilduma berriak. Honakoan, "argazkiaren lehen planoak izango du garrantzia gehien bat". Maiatzaren 11n ostirala, 20:00etan Sutegin.



Saharako hurrek ere, "oporrak bakean"

Saharar errefuxiatu kanpamentuetan bizi duten egoera gatazkatsutik ateratzeko aukera eskaini nahi zaie 7 eta 12 urte bitarteko hurrei. Bide batez, desertuan uda partean pairatzen den tenperatura altuetatik babestea. Maiatzaren 11n amaituko da ekimen honetan izena emateko epea. Programa honekiko interesa duen edonork Usubilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo dezake: 943 377 110.

San Juanak prestatzeko bilera, Haraneko lokalean

Maiatzaren 4an ostirala arratsaldeko 17:00etan bilera, guraso taldeak deituta. Bilerak iraun bitartean, umeek jolasteko gunea izango dute zabalik.

"Adierazpen sorkuntza" tailerra Gaztelekuan

Adierazpen sorkuntza: gure bizi-tzaren aktore nagusiak baikara izeneko tailerra antolatu du Gaztelekuak, maiatzaren 5 eta 12rako. DBH zikloko 1. mailako ikasleei zuzendua egongo den ekimenean margoak, dantza, interpretazioa edo musika baliatuta, komunikazioa landu nahi da tailerrean parte hartuko duten gazteekin. Bi saioak maiatzeko lehen bi larunbatetan burutuko dira, 16:00-17:30 artean Potxoenean. Saioa Agiñakok gidatuko ditu. Tailerrean parte hartu asmo dutenek, aldeztatik Gaztelekuan izena eman beharko dute.

IAITETXEA - TABERNA
BELARTZA

943 37 60 82

Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak

- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Umeentzat menu bereziak
- Atsedeen egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN

Poligono Belartza • Gurutzegil kalea, 15 - A4 Pabiloia • Donostia

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Larunbat honetan, herri krosa

Larunbat honetan, maiatzak 5, D3M hautes-plataformari eta Askatasuna alderdiari egingo zaien epaiketa salatzeke herri krosa antolatu da. Era honetan, Agurtzane Solaberrieta herritarrari elkartasuna adierazi nahi diote antolatzaileek, ITAYA Gazte Asanbladakoek. 11:30ean hasiko da krosa, Bordatxo ingurutik abiatuta.

ITAYAk igorri digun prentsa-oharrean zehetasun hauek zehaztu dizkigute: "maiatzaren 5ean larunbata, goizeko 11:30ean bilduko gara krosean parte

hartu nahi dugun guztiok Bordatxo inguruan. Hainbat geldialdi izango ditu krosak herrian zehar, errelebokakoa izango baita, eta beraz, partehar-tzaileak taldetan banatuko ditugu egin nahi duten korrika saioaren arabera. Ibilbidea ez da inola ere luzea izango, Usurbilgo erdialdetik ibiliko gara".

Aipatzekoa da azken asteotan, Usurbilgo talde ezberdinetako kirolariek bat egin dutela elkartasun ekimenearekin. Futbol nahiz eskubaloi taldeko neskek, esate baterako, argazki bana bidali digute, "Epaiketa politikorik ez" eskatuz.



GOIAN, ESKUBALOI JOKALARIAK; ERDIAN, FUTBOL JOKALARIAK. BEHEAN, OLATZ LASAGABASTER ZORIONTEZKO ARGAZKIA (TARTEAN, HERRIKO KIROLARIAK).

Pilota Txapelketan, atseden

Usurbilgo pilota txapelketak asteburu honetan atseden hartuko du. Maiatzaren 12-13ko asteburuan hasiko dira azken-zortzi-renekin.

Funky, hip hop eta gimnasia eritmitikoa kiroldegian

Tximeletak antolatuta, 450 ikasle elkartuko dira larunbat honetan Oiardo kiroldegian, 10:00etan hasi eta 18:00ak arte iraungo duen ikuskizunean.



Kirol Patronatuko

abonatuen ordezkari berria

Bi urtez behin burutzen den eta neguan zehar garatu den hautaketa prozesu baten ondoren, Xabier Mantecon Marin da Oiardo Kirol Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak aukeratu duen kide abonatuaren ordezkari berria. Izendapena Kirol Patronatuak berak proposatuzion udalbatzari, azken osoko ohiko bilkuran, eta udalbatzak, izendapena aho batez onartu zuen.



Poxpolin
MERTZERIA
943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Javier Orbegozo
ITURGINTZA
GASA • BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Badator Usurbil Cup 2012

Bi aste barru abiatuko da Usurbil FT-k antolatutako Usurbil Cup, berrikuntzekin gainera. 6-14 urte arteko haur eta gazte-txoei zuzendu, lehiakortasuna alboratu eta kirola eginez ondo pasatzera bideratua dagoen ekimenerako izen ematea ostiral honetan irekiko da. Astebeteko tartea egongo da apuntatzeko, Oiaro Kiroldegian.

Usurbil Cup-en parte hartzekotan dabiren talde bakoitzak kiroldegian bertan eskuratu ahal izango duen inskripzio orria bete eta 50 euro ordaindu beharko ditu. Horretarako, ostiral honetatik, maiatzaren 4tik 10erako epea egongo da. Horren ostean jakingo da zenbat parte hartzaile bilduko dituen ekimenak. Iaz 300 baino gehiago izan ziren.

USURBIL FT

“Taldeetako jokalariek guztiek partidetan parte hartzea bultzatu nahi dugu”

Lehen futbol partidak maiatzaren 18ko asteburuan jokatu dira. Bi aste barru hasi eta Usurbil Cup, ekainaren 23ko asteburuan amaitzea aurreikusten dute antolatzaileek. Bitarte horretan, iaz bezala, aurten ere txapelketa gune desberdinetara hedatzeko asmoa dute. Frontoia, ikastola eta kiroldegira, baina baita Santuenea edo Artzabalera ere. Txapelketa hasi aurretik, antolakuntzak ekimenean parte hartuko duten taldeetako arduradun edo entrenatzaileekin biltzeko asmoa du, hilaren 14an. Hitzordu honen bidez, aurtengo edizio-

ko arauak eta gainerako nondik norakoak azaldu nahi dituzte Usurbil FT-ko kideek.

Berrikuntzekin dator eta aurtengo Usurbil Cup. Aurreko urteen moduan, oraingoan ere, kirol ekimen hau, minibenjamin (LH 1-2), benjamin (LH 3-4), alebin (LH 5-6) eta infantil (DBH 1-2) mailako gazte-txoei zuzendua egongo da. Lehen aldaketa hain zuzen, jokalarikopuruari dagokiona da. Kategoria hauetakoren batean osatzen den taldeak, gutxienez 8 jokalarikopuru izan beharko ditu aurten, gehienez 10. Berrikuntza hau helburu zehatz batekin txertatu du Usurbil FT-k. Taldeko jokalariek guztiek partidetan parte hartzeko tartea izatea bultzatu nahi dute.

Lehiarik ez minibenjaminetan

Minibenjamin eta benjamin mailen kasuan, kopuruak desberdinak izango dira. Lehen, taldeak lau jokalarikopuru eta atezainez osaturikoak izan ziren. Edizio honetan ordea, bost jokalarikopuru eta atezainarekin osatu beharko dira taldeak. Badira ordea berrikuntza gehiago, minibenjaminen kategorian. Usurbil FT-tik ohartarazi dutenez, kategoria honetan Usurbil Cup ez dute “txapelketa moduan jokatu”. Bi arrazoigatik; batetik, Eskola Kirolaren araudiak debekatzen duelako. Hau da, 6-7 urte tartean, talde kiroltan ezin da lehiakortasunik bultzatu. Honez gain, gerora ere horretarako aukera izango dutela jabetuta, antolakuntzatik adin horietan lehiatzeak haurrentzat gehiegizko presioa suposa dezakeela irizten diote. Eurak ondo pasatzea lortu nahi dute Usurbil FT-tik, lehia kontuak alboratuta. Honenbestez, gainerako kategoriek alderatuta, minibenjaminen jok-



6-14 URTEKO GAZTEEI

ZUZENDUTA DAGO USURBIL CUP.

tzeko modu edota partida egutegi desberdinak izango dituzte. Partida motzak hain zuzen, eta antolakuntzatik gaineratu dutenez, maila honetan parte hartzeko, derrigorrezkoa izango da, “taldeak mistoak izatea”.

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera bestalde, Usurbil Cup txapelketan parte hartzera deitzen dituzte neskak. Nahikoa talde osatuko balira, aparteko txapelketa bat antolatzeko aukera legoke, Usurbil FT-tik ohartarazi dutenez.

Lanketa,

bazterketak saihesteko

Aurtengoan bereziki, gurasoen Aimplikazioa bultzatu nahi dute Usurbil FT-tik. Eurekin eta Udarregi Ikastolarekin batera, lanketa burutu nahi du futbol taldeen bilguneak, hastear den txapelketan jokalarien artean jarrera baztertzailak egon ez daitezen. Eta zaletuen artean ere jarrera eta praktika egokiak hedatzeko. Txikitatik alor honetako hezkuntza bultzatu nahi du Usurbil FT-k, aipatu moduan, gazte-txoei guztien parte hartzearekin, eta euren artean ondo pasatzea sustatzearekin batera.

LAUKOTE
okindegia
kafeteria
LAUKOTE
Puntapax 16, behea 943 360 980

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ZUBIAURRENEA 4, USURBIL
ileapaindegi
misto
943361951

Autobus Ordutegia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
06.55	07.15	07.20	07.30	07.40	08.45	06.55	07.05	07.10	07.30
07.40	08.00	08.05	08.15	08.25	07.15	07.25	07.35	07.40	08.00
08.10	08.30	08.35	08.45	08.55	07.45	07.55	08.05	08.10	08.30
08.40	09.00	09.05	09.15	09.25	08.15	08.25	08.35	08.40	09.00
09.10	09.30	09.35	09.45		08.45	08.55	09.05	09.10	09.30
09.40	10.00	10.05	10.15	10.25	09.20	09.30	09.40	09.45	10.05
10.40	11.00	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	10.10	10.30
11.40	12.00	12.05	12.15	12.25		10.30	10.40	10.45	11.05
12.10	12.30	12.35	12.45	12.55	10.45	10.55	11.05	11.10	11.30
12.40	13.00	13.05	13.15	13.25	11.50	12.00	12.10	12.15	12.35
13.10	13.30	13.35	13.45	13.55	12.45	12.55	13.05	13.10	13.30
13.40	14.00	14.05	14.15	14.25	13.20	13.30	13.40	13.45	14.05
14.10	14.30	14.35	14.45	14.55	13.45	13.55	14.05	14.10	14.30
14.40	15.00	15.05	15.15	15.25	14.20	14.30	14.40	14.45	15.05
15.10	15.30	15.35	15.45		14.50	15.00	15.10	15.15	15.35
15.40	16.00	16.05	16.15	16.25	15.20	15.30	15.40	15.45	16.10
16.40	17.00	17.05	17.15	17.25	15.45	15.55	16.05	16.10	16.30
17.40	18.00	18.05	18.15	18.25		16.30	16.40	16.45	17.10
18.10	18.30	18.35	18.45		16.50	17.00	17.10	17.15	17.35
18.40	19.00	19.05	19.15	19.25	17.45	17.55	18.05	18.10	18.30
19.10	19.30	19.35	19.45	19.55	18.45	18.55	19.05	19.10	19.30
19.40	20.00	20.05	20.15	20.25		19.30	19.40	19.45	20.05
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	19.45	19.55	20.05	20.10	20.30
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05	21.15	21.25	21.35	21.40	22.00

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.35
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.35
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.35
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.35
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.35
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.35
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.35
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.35
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.35
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.35
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.35
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.35
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.35
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.35
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.35

LARUNBAT GAUETAN

00.00	00.20	00.25	00.35	00.45
01.00	01.20	01.25	01.35	01.45
02.00	02.20	02.25	02.35	02.45
04.00	04.20	04.25	04.35	04.45
05.00	05.20	05.25	05.35	05.45
06.00	06.20	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	23.40	00.00
00.15	00.25	00.35	00.40	01.00
01.15	01.25	01.35	01.40	02.00
02.15	02.25	02.35	02.40	03.00
04.15	04.25	04.35	04.40	05.00
05.15	05.25	05.35	05.40	06.00

• Linea LANEGUNETAN baxia

Tren Ordutegia

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06:08	06:15	06:24	06:39	05:47	06:01	06:11	06:20
06:38	06:45	06:54	07:09	06:17	06:31	06:41	06:50
07:08	07:15	07:24	07:39	06:47	07:01	07:11	07:20
07:38	07:45	07:54	08:09	07:17	07:31	07:41	07:50
08:08	08:15	08:24	08:39	07:47	08:01	08:11	08:20
08:38	08:45	08:54	09:09	08:17	08:31	08:41	08:50
09:08	09:15	09:24	09:39	08:47	09:01	09:11	09:20
10:08	10:15	10:24	10:39	09:47	10:01	10:11	10:20
11:08	11:15	11:24	11:39	10:47	11:01	11:11	11:20
12:08	12:15	12:24	12:39	11:47	12:01	12:11	12:20
12:38	12:45	12:54	13:09	12:17	12:31	12:41	12:50
13:08	13:15	13:24	13:39	12:47	13:01	13:11	13:20
13:38	13:45	13:54	14:09	13:17	13:31	13:41	13:50
14:08	14:15	14:24	14:39	13:47	14:01	14:11	14:20
14:38	14:45	14:54	15:09	14:17	14:31	14:41	14:50
15:08	15:15	15:24	15:39	14:47	15:01	15:11	15:20
*15:38	15:45	15:54	16:09	*15:17	15:31	15:41	15:50
16:08	16:15	16:24	16:39	15:47	16:01	16:11	16:20
*16:38	16:45	16:54	17:09	*16:17	16:31	16:41	16:50
17:08	17:15	17:24	17:39	16:47	17:01	17:11	17:20
*17:38	17:45	17:54	18:09	*17:17	17:31	17:41	17:50
18:08	18:15	18:24	18:39	17:47	18:01	18:11	18:20
*18:38	18:45	18:54	19:09	*18:17	18:31	18:41	18:50
19:08	19:15	19:24	19:39	18:47	19:01	19:11	19:20
*19:38	19:45	19:54	20:09	*19:17	19:31	19:41	19:50
20:08	20:15	20:24	20:39	19:47	20:01	20:11	20:20
21:08	21:15	21:24	21:39	20:47	21:01	21:11	21:20
22:08	22:15	22:24	22:39	21:47	22:01	22:11	22:20
22:40	22:47	22:56	23:11				

00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN
 00:00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN
 * Astegunetan eta Udako (2012/06/18-2012/09/09)
 Larunbat, Igande eta Jaiegunetan
 www.euskotren.es ☎ 902 54 32 10

Ospitalera autobusak astelehenetik ostiralera (lanegunak)

Usurbil → Ospitaleak			
USURBIL	ZUBIETA	LASARTE	OSPITALEAK
07:15	07:25	07:30	07:45
08:15	08:25	08:30	08:45
09:15	09:25	09:30	09:45
10:15	10:25	10:30	10:45
11:30	11:40	11:45	12:00
12:30	12:40	12:45	13:00
13:30	13:40	13:45	14:00
14:30	14:40	14:45	15:00
15:30	15:40	15:45	16:00
16:30	16:40	16:45	17:00
17:45	17:55	18:00	18:15
18:45	18:55	19:00	19:15
19:45	19:55	20:00	20:15

Ospitaleak → Usurbil			
OSPITALEAK	LASARTE	ZUBIETA	USURBIL
-	07:00	07:05	07:15
07:45	08:00	08:05	08:15
08:45	09:00	09:05	09:15
09:45	10:00	10:05	10:15
11:00	11:15	11:20	11:30
12:00	12:15	12:20	12:30
13:00	13:15	13:20	13:30
14:00	14:15	14:20	14:30
15:00	15:15	15:20	15:30
16:00	16:15	16:20	16:30
17:15	17:30	17:35	17:45
18:15	18:30	18:35	18:45
19:15	19:30	19:35	19:45
20:15	20:30	20:35	20:45



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Irteera Usurbil

ASTELEHEN-LARUNBATERA
 07:15- 7:45- 08:15- 08:45
 09:15- 10:15- 11:15- 12:15
 12:45- 13:15- 13:45- 14:15
 14:45- 15:15- 16:15- 17:15
 18:15- 18:45- 19:15- 19:45
 20:15- 20:45- 21:15- 21:45
 22:15
IGANDE-JAIEGUNETAN
 15:15- 16:15- 17:15- 18:15
 19:15- 20:15- 21:15- 22:15

Irteera Astigarraga

ASTELEHEN-LARUNBATERA
 07:00- 7:30- 08:00- 08:30
 09:00- 09:30- 10:30- 11:30
 12:30- 13:00- 13:30- 14:00
 14:30- 15:00- 15:30- 16:30
 17:30- 18:30- 19:00- 19:30
 20:00- 20:30- 21:00- 21:30
 22:00
IGANDE-JAIEGUNETAN
 15:00- 16:00- 17:00- 18:00
 19:00- 20:00- 21:00- 22:00

TSST autobusak ZUBIETA-LASARTE

LANEGUNETAN

Zubieta-Lasarte 7:25/ 8:25/ 9:25/ 10:25/ 11:40/ 12:40
 13:40/ 14:40/ 15:40/ 16:40/ 17:55/ 18:55/ 19:55/ 20:55
 Lasarte-Zubieta 7:00/ 8:00/ 9:00/ 10:00/ 11:15/ 12:15
 13:15/ 14:15/ 15:15/ 16:15/ 17:30/ 18:30/ 19:30/ 20:30

LARUNBATETAN

Zubieta-Lasarte 08:15/ 12:45/ 15:05/ 21:35
 Lasarte-Zubieta 08:10/ 12:40/ 15:00/ 21:30

JAIEGUNETAN

Zubieta-Lasarte 11:20/ 13:30/ 15:30/ 21:35
 Lasarte-Zubieta 11:15/ 13:25/ 15:25/ 21:30

Baxia orratia baxia
 www.tsst.info ☎ 943 36 17 41

BUS-TAXI

Astelehenetik Ostiralera
 ☎ 630 64 35 96*

GETOKIAK	ORDUAK
1 Usurbil kaxkoa	7:30 10:30 13:00 15:30 19:00
2 Kalezar	7:32 10:32 13:02 15:32 19:02
3 Iariza	7:35 10:35 13:05 15:35 19:05
4 Ibarrola	7:38 10:38 13:08 15:38 19:08
5 Arratzain	7:42 10:42 13:12 15:42 19:12
6 Txantxon	7:45 10:45 13:15 15:45 19:15
7 Urdaira	7:48 10:48 13:18 15:48 19:18
8 Aginaga	7:55 10:55 13:25 15:55 19:25
9 Txokoalde	8:00 11:00 13:30 16:00 19:30
10 Urdaiaga San autobus	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
11 Santuenea	8:03 11:03 13:35 16:03 19:35
12 Usurbil kaxkoa	8:05 11:05 13:38 16:05 19:38
13 Santuenea	8:10 11:10 13:40 16:10 19:40
14 Amiri	8:12 11:12 13:42 16:12 19:42
15 Etxeta ingurua	8:14 11:14 13:44 16:14 19:44
16 Alkortaenea	8:17 11:17 13:47 16:17 19:47
17 Zubieta	8:22 11:22 13:52 16:22 19:52

Agenda !!

Maiatzak 3 osteguna

- Alberto Iñurrategiren diaporama, Sutegin 19:00etan.

Maiatzak 4 igandea

- "Bodologuak", Sutegin 22:00h.

Maiatzak 5 larunbata

- Tximeletak antolatutako topaketa kiroldegian, 10:00etatik 18:00etara.

- "Arriya" pelikula Sutegin 22:00h.

Maiatzak 6 igandea

- Andatza Eguna 11:00etatik aurrera.

- "Earthlings" pelikula Sutegin, 18:30ean. Antolatzaila: ITAYA.

Goardiako farmaziak

Maiatzak 3, osteguna

De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 4, ostirala

Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Maiatzak 5, larunbata

Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 6, igandea

Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 7, astelehena

Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 8, asteartea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 9, asteazkena

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 10, osteguna

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 11, ostirala

De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 12, larunbata

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 13, igandea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Animalien sufrimenduaren inguruko dokumentala, igande honetan Sutegin

Igande honetan, maiatzak 6, "Earthlings" (lurtarrak) dokumentala proiektatuko da arratsaldeko 18:30ean Sutegi aretoan, ITAYAK antolatuta.

Joaquin Phoenix aktoreak jarri dio ahotsa filmeari eta Moby musikariak doinuz jantzi. Biak beganoak dira, hau da, ez dute animalietatik eratorritako elikagai, jantzi edo bestelako produkturik kontsumitzen. Bost urte behar izan zituzten dokumentala ekoizteko. Etxaldeetan, enpresetan eta laborategietan kamera ezkutua erabiliz, animalien esplotazioa



eta sufrimendua jaso dute dokumentalean. "Inor ezaxola uzten ez duen filma", ITAYAKoen esanetan.

Udajolas-en izena eman duten guztiak onartuak izan dira

Uztailean egingo da Udajolas, Udalak antolatu eta NOAUA!k koordinatzen duen udaleku irekia. 4-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago (HH3-LH6). Uztailaren 3tik 27ra izango da martxan, kaxkoan, honako ordutegian: goizeko 9:30etik 13:30era.

Bilera, ekainaren 13an

Izena eman duten haur guztiak onartuak izan dira, beraz, ez da zozketarik egin behar izango.

Udajolasen inguruko xehetasun gehiago emango dira ekainaren 13an asteazkena, Udarregi ikastolan egingo den bileran. 17:00etan hasiko da eta Udajolasen izena eman duten haurren gurasoei zuzenduta dago.

Zubietako Txokoetan izena emateko epeak zabalik jarraitzen du

Txokoak 3 urtetik (2009 urtean jaioetakoak) 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude. Uztailean eta abuztuan Eskola Txikian elkartuko dira eta ordutegia hau izango da: 9:30etik 13:30era.

Izen emate orriak ikastolan eta Barazar Tabernan eskuratu daitezke eta Udaletxeko buzoian bota behar dira (Alamandegin).

Azken eguna, maiatzak 11

Izen emateko azken eguna maiatzaren 11 izango da. Edozein zalan-tza izanez gero deitu telefono hauetara: Josune (636 719 301), Izaskun (618 700 479).

Kuota izena ematen duten haurren kopuruaren arabera zehaztuko da.

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78


Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

ETXEBIZITZA

- Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairuko, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914
- Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berriua. 3 balkoi eta ganbarra. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Etxebizitza alokatzen da Usurbilen. 3 logela, bi bainu gela, sukalde eta salarekin. 626 347 914.
- Pisia salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 35 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
- Pisia alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
- 3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, opporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurrerarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisia salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisia salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbarra, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisia salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbarra, igogailuarekin. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berritua, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabilta Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisia alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gautan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbarra. Oso eguzkitsua eta bizitzan jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbarra ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroaldegi ondoan. Tel. 646.041915 Aiaia.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kapritxozko Citroen Saxo salgai premiazkoa 2.200 euro. SS-BH, sekula istripurik izan gabea. Ondo zaindua eta gehigarri batzuk opari: bolante deportiboa eta erruberak zabalteko piezak. 609 928 387.
- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabal. 647 120 253.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar dugu, Xarma tabernan. 943 368 771.
- Selektibitate prestatzeko klaseak jaso nahi ditut mar txoan eta apirillean, bi alor hauetan: Matematika (zientzietakoa eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoak. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmetuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan-eskaintzak

- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanerarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
- Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanerarako. 618 030 296.
- Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanerarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatu eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrik emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrik emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrik emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziarik eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrik emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrik, maila guztietan, 18

urtetako esperientzia. 646717676.

- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrik emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zainitzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanerarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritza aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketak titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboa, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan aritzeko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziarik eskaintzen da gautan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zainitzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrik ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zainitzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanerarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteak orduka zainitzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zainitzeko edo ostalaritza lanerarako. Esperientziaduna. 658107757

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Egoera onean dauden kanping kanadienseak jasoko genituzke. Soberan izanez gero: zioritza@gmail.com
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon"en. Aste Santuko bigarren astea, uztaia eta iraila. "Punta Lago" kanpinea. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai, artoarekin batera egindakoa: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa, Bogaboo edo antzeko bat saltzen baduzu, deitu telefono honetara: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Legorretako babarruna salgai. 943 80 62 48.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen Wii-a, PSP-a eta Nintendo DSi-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitzita joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.



Zorionak bikote! Maiatzak 9 eta 16an zuen urtebetetzak dira. Muxu potoloak etxekoen partez.



Beno Mercero! Dagoeneko 63! Eutsi horri eta disfrutat, senide eta lagun guztion maitasunez inguratutik. Zorionak eta muxu handi bat!



Zorionak izaro! Maiatzaren 3an 8 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak Enaitz! 6 urte bete dituzu jada. Ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat etxekoen partez txapeldun!

GASOLIO SALMENTA, HURBILAGO ETA MERKEAGO



USURBILGO ALKARTASUNA BASERRITARREN KOOPERATIBAN

GASOLIO SALMENTARAKO AUTOZERBITZUA 24 ORDUZ IREKIA



Txartelarekin ordainduta, **%2,5eko** deskontua



USTEKABEKO DESKONTUAK

Maiatzean erosketak Hurbilago Txartelarekin ordaintzerakoan %5 aurrez dezakezu.



Deskontuak zoriz aterako dira hilabetean zehar.



erabili ezazu!